

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

5254

10/2023 LEGEA, azaroaren 9koa, 2023-2026 Euskal Estatistika Planarena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea hirugarren aldiz aldatzekoa.

Euskadiko herritar guztiei jakinarazten zaie Eusko Legebiltzarrak onartu egin duela 2023-2026 Euskal Estatistika Planaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea hirugarren aldiz aldatzeko azaroaren 9ko 10/2023 Legea.

ZIOEN AZALPENA

Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 10.37 artikuluan xedatzen duenez, «Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du honako gai hauetan: (...) 37. Euskal Herriko estatistika, bere helburu eta eskumenetarako».

Artikulu hori aplikatuz, Eusko Legebiltzarrak apirilaren 23ko 4/1986 Legea onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoa. Lege horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera arautzen da, eta jarduera hori egiteko erakundea sortzen da. Lege hori, beraz, ezinbesteko abiapuntua da.

Hala ere, estatistika-jardueraren erregulazioa ez da arau horretan agortzen, jarduera hori antolatzeko tresna Euskal Estatistika Plana izango dela aurreikusten baita. Plan horrek bere indarraldian egin behar diren eta lege bidez onartu beharko diren estatistikak eta izaera horretako beste jarduera batzuk bilduko ditu. Plan hori jarduera-esparruaren goiko erpina da, eta, aldi berean, urteko estatistika-programek garatuko dute.

Aurreko zortzi planek (1989-1992, 1993-1996, 1997-2000, 2001-2004, 2005-2008, 2010-2012, 2014-2017 eta 2019-2022), zeinak, aldi berean, urteko estatistika-programen bidez garatu baitira, aldi bakoitzean egin beharreko estatistikak zehaztu dituzte, bai eta estatistika horiek nork eta zer baldintza teknikotan egin behar zituen ere. Plan horietako azkenak bere indarraldia agortu du, eta, beraz, Eusko Legebiltzarrak beste bat onartu behar du.

Premisa horien arabera, lege honen bidez 2023-2026 Euskal Estatistika Plana onartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeak laurtekoan egin behar dituen estatistikak eta izaera horretako beste jarduera batzuk jasotzen dituena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legea estatistika-jardueraren behar berrietara egokitzen da.

Ondorioz, legearen artikuluetan dago hura kokatu eta enkoadratzen duten koordinatu materialen eta denborazkoen definizioa.

Legearen eremu materiala, 1. artikuluan zedarritua, eranskinetan zehaztutako estatistikak eta izaera horretako beste jarduera batzuk egitean datza, eta horiek legean txertatzen dira, balio arauemaile berarekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 6.2 artikulua xedatzen du planak indarrean dagoen bitartean jasoko dituela estatistikak eta antzeko jarduerak. 2023-2026 Euskal Estatistika Plan hau aipamen labur horretatik harago doa, eta eragiketa bakoitzaren ezaugarri nagusiak adierazten ditu, horiek sartzea komeni dela uste delako,

eragiketa horien definizio osoagoa egiteko, baina horrek ez du urteko estatistika-programen eraginkortasuna deuseztatzen, programa horietan eragiketa bakoitzerako behar diren zehaztapenak egingo baitira. Gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 17. artikulua xedatutakoarekin bat, estatistiken eta azterlanen egokitzapenari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeak sistematikoki sartuko du sexu-aldagaia Euskal Estatistika Planaren barruan egiten diren estatistika-eragiketetan, eta genero-ikuspegia txertatuko du estatistika-eragiketaren fase guztietan.

Horregatik, IV. eranskinak, eragiketak zerrendatzeaz gain, horietako bakoitzerako honako ezauzgarri hauek azaltzen ditu:

a) Helburu orokorrak, urteko estatistika-programetan garatzen direnak.

b) Erakunde arduraduna, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen II. tituluko III. kapituluaren aipatzen den eskumenean eragina duena. Eskumen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundearen organo eta erakundearen esparruan baino ez da esleitzen, zeinak legearen 26. artikuluan aurreikusita baitaude.

c) Parte hartzen duten beste erakunde batzuk, kontuan hartuta eragiketa oso batean parte hartzeko aukera dagoela, edo eragiketa osatzen duten faseetako batzuetan bakarrik.

d) Gai-eremua. Ikerketari dagokion jarduera-eremu generikoa mugatu nahi da. Hauek dira gai-arloak:

- 1) Demografia eta gizarte-azturak
- 2) Hizkuntzak
- 3) Osasungintza eta osasuna
- 4) Hezkuntza
- 5) Lan-merkatua eta lan-kostuak
- 6) Gizarte-babesa eta gizarte-zerbitzuak
- 7) Kultura, aisia eta kirolak
- 8) Justizia eta segurtasuna
- 9) Ingurumena
- 10) Lehen sektorea
- 11) Industria eta energia
- 12) Eraikuntza eta etxebizitza
- 13) Zerbitzu-sektorea
- 14) Merkataritza eta automobil-zerbitzuak
- 15) Administrazio publikoa
- 16) Finantzak eta aseguruak
- 17) Kontu ekonomikoak

- 18) Prezioak
- 19) Gizarte-ekonomia
- 20) Azpiegitura estatistikoa
- 21) Garapen estatistikoa
- 22) Informazioaren gizartea eta I+G+b
- 99) Beste batzuk.

e) Egoera. Jakin nahi da estatistika-eragiketa dagoeneko hasia den, behin eta berriz egiten delako, edo lehenengo aldia den.

f) Hedatzeko aldizkakotasuna. Emaitzak zenbatean behin eskuratuko diren jakinarazi nahi zaie herritarrei, lan egiteko maiztasuna edozein dela ere.

g) Eragiketa-mota. Estatistiken izaerari buruzko informazioa ematen da; bereziki, informazioa berriaz biltzen den (direktorioa, zentsua, laginketa bidezko inkesta), abiapuntutzat hartzen diren beste informazio batzuei (bilketa, sintesia) balioa gehitzen zaien edo normalizazioa, metodologia hobetzea edo estatistika garatzea dakarren tresna osagarria den.

2. artikulua urteko estatistika-programak garatu eta gauzatzea ezartzen du, behar bezala arrazoi-tutako etorkizuneko beharrezanetara egokitzeko aurreikuspenarekin.

3. artikulua estatistika-jardunaren araubide juridikoa arautzen du, Europako Estatistiken Jardunbide Egokien Kodearen printzipioetan oinarritutako estatistika-eragiketen kalitatea bermatuz.

4. artikulua ezartzen du erakundeek, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek, publiko zein pribatuek, plan honetan araututako estatistikak egiteko behar den informazioa eman behar dutela. Informazio horren barruan sartzen dira «datu pertsonalen kategoria bereziak», Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan aipatzen direnak (erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du).

Bestalde, ezin da ahaztu Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak estatistikak administrazio-datuen bidez ekoiztearen alde egiten duela, administrazio publikoek beren prozedurak berritzeko egiten dituzten ahaleginak ahalik eta errentagarrienak izan daitezen, aldi berean kudeaketa-helburuak eta estatistika-helburuak bete ditzaten, eta, horrela, ahal den neurrian, herritarrei, enpresei eta beste erakunde batzuei informazioa bi aldiz eskatzea saihesteko.

Azken xedapenetako lehenengoan, zenbait aldaketa egiten zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen artikuluei. Horien helburua da estatistika-erregulazioa egokitzea eremu materialean, estatistika-jardueran, normalizazioan, estatistika-informazioaren iturri berrietan (hala nola datu masiboetan eta iturri digitaletan) eta fitxategi-direktorioen informazio-beharren egokitzapenean, bai eta Eustat-Euskal Estatistika Erakundearen eskumenak zabaltzea ere, testuinguruan kokatutako estatistika-informazioa eskaintzeko eta datuak informazio eta ezagutza bihurtzeko. Horrek guztiak ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzen lagunduko du, tresna eta metodologia aurreratuak erabilita eta datuen konfidentzialtasuna eta segurtasuna oso kontuan hartuta.

Lehen esan bezala, administrazio-erregistroetatik datozen datu-iturriak funtsezkoak dira estatistika-eragiketen kostuak eta informatzaileen karga murrizteko. Datu estatistikoaren estrategiaren helburua izango da datu egituratuak lortzea, datuen estandarizazioa eta normalizazioa kontuan hartuta, bai eta datu bakarra lortzea ere. Horregatik, beharrezkoa da helburu estatistikoetarako datu-iturri gisa erabil daitezkeen administrazio-erregistroak beren diseinutik bertatik normalizatuta egotea, eta ezinbestekoa da Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak nahitaezko txostena egitea administrazio-erregistroak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko.

Apirilaren 23ko 4/1986 Legean sartutako beste berrikuntza bat Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanleriaren Erregistroa sortzea da. Erregistroa Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak kudeatuko du, eta bere helburua da Administrazio orokorreko eta foru-administrazioetako organoek, bai eta horien erakunde instituzionalek ere, informazioa eskatzea, beren eskumenak gauzatzeko beharrezkoa denean, eta, soil-soilik, bizilekua edo helbidea garrantzitsuak diren gaietarako.

Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeak maila operatiboan datu egituratu ugari kudeatzen dituzte. Datu horiek ezinbestekoak dira plan, programa eta proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta azterlan estatistikoak egiteko balio dezakete. Estatistika-datu masibo kopuru handi hori plan, programa eta proiektu horien diseinatzaile eta kudeatzaileen eskura jarri nahi da, tratamendu-ingurune seguru batean eta konfidentzialtasun- eta segurtasun-berme guztiekin.

Apirilaren 23ko 4/1986 Legearen azken zatian datu konfidentzialetarako irispidearen erregulazioa sartzeko da, helburu zientifikoekin, Europako estatistiken erregulazioan egiten den antzera, bistan denez zentro seguru baten bidez eta konfidentzialtasun- eta segurtasun-baldintza guztiak betez.

Azkenik, erakundearen izena erregularizatu nahi da, euskarazko eta gaztelaniazko izenak eta erakundearen izen komuna (Eustat) kontuan hartuta.

Legearen azken xedapenetako bigarrena, hirugarrena eta laugarrena planaren funtsezko koordenatuetako bigarrenari buruzkoak dira, hau da, denbora-koordinatuari buruzkoak, eta, horrela, aurrekontu-ekitaldien amaierarekin bat etorriz, indarraldia 2026ko abenduaren 31n amaituko dela ezartzen da, bai eta planaren balizko luzapenari buruzkoak ere, baldin eta plan hau amaitzean beste bat onartzen ez bada.

1. artikulua.– Onarpena eta edukia.

1.– 2023-2026 Euskal Estatistika Plana onartzen da.

2.– Plan hori Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera 2023-2026 aldiari antolatzeko tresna da, hargatik eragotzi gabe balizko luzapena.

3.– Planaren edukia da lege honen eranskinetan jasotako estatistikak eta izaera horretako beste jarduerak batzuk egitea.

2. artikulua.– Urteko estatistika-programak.

1.– 2023-2026 Euskal Estatistika Plana urteko estatistika-programen bidez garatu eta gauzatu da.

2.– Urteko estatistika-programek 1.3 artikuluan aipatzen diren estatistika-eragiketen ezaugarriak zehaztu eta definituko dituzte, aurrekontu-zuzkiduren esparruan.

3. artikulua.– Estatistika-jardunaren araubide juridikoa.

1.– Planaren ondoriozko estatistika-jarduna Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako araudiaren eta lege honen arabera-koa izango da.

2.– Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera estatistika ofizialei eta Jaurlearitzaren sailtako estatistika-organo espezifikoek egindako estatistikei dagozkien emaitzak publikoak izango dira beti, eta formatu berrerabilgarrian argitaratu beharko dira.

3.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 17. artikulua xedatutakoa betetze aldera, plan honetan jasotako estatistikek genero-ikuspegia txertatuko dute, diseinutik hasi eta hedapenera arte.

4. artikulua.– Nahitaez erantzun beharra.

1.– 2023-2026 Euskal Estatistika Planean jasotako estatistikak nahitaez bete behar dira. Bete-behar horrek datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen eta aplika daitekeen araudia errespetatu beharko du.

2.– Nolanahi ere, estatistika-antolakundeari emandako datuak sekretu estatistikoaren pean egongo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 19. artikulutik 23.era bitartean ezarritakoari jarraituz.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen aldaketak.

Bat.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 1. artikulua, eta honela idatzita geldituko da:

«1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikaren eremu materiala honako hau izango da: lurraldearen, ekonomiaren, gizartearen, lanaren, demografiaren eta ingurumenaren errealitateari buruzko informazioa lantzea, eta, oro har, autonomia erkidego horri esleitutako helburu eta eskumenekin lotutako edozein gai interesgarri, kuantitatibo zein kualitatibo, eta errealitate horien adierazleen konfigurazioa. Estatistika-jarduera honetan datza: datuak lortu, bildu, landu eta sistematikoki eta analitikoki antolatzea, horien analisi masiboa barne, bai eta kontserbatzea, biltegitratzea, argitaratzea eta zabaltzea ere.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikari dagokion jarduera, betiere, ohorerako eta norberaren eta familiaren intimitaterako eskubideari buruz une bakoitzean indarrean dagoen araudia betez gauzatuko da.

3.– Estatistika-jarduerak datuetan oinarritutako kudeaketan eta ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzen lagunduko du, eta politika publikoak eta horien kudeaketa planifikatzeko eta ebaluatzeko balioko du; horretarako, politika publikoen ebaluazioan eskatzen diren estatistika-beharrak hartuko ditu kontuan».

Bi.– Ezabatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 2. artikuluko 5. paragrafoa.

Hiru.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 3.1 artikulua d) letra, eta honela idatzita geldituko da:

«d) Homogeneotasuna kontzeptuetan, definizioetan, sailkapenetan, nomenklaturetan eta kodeetan, berezko estatistikak eta beste estatistika-sistema batzuetakoak, bereziki Europar Batasunekoak, konparatzeko aukera emango duena».

Lau.– Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 3. artikulua 3. eta 4. paragrafoak gehitzen zaizkio, honela idatzita:

«3.– Ekintza batek helburu estatistikoa duela ulertuko da Euskal Autonomia Erkidegorako beharrezkoak diren estatistikak lortzera bideratuta dagoenean.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko estatistika-jarduera Europako Estatistiken Jardunbide Egokien Kodean oinarritutako kalitate-irizpideetan oinarrituko da».

Bost.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 4. artikulua, eta honela idatzita geldituko da:

«Estatistika-jarduera homogeneizatzeko balio duten kontzeptuak, definizioak, sailkapenak, nomenklaturak eta sektore-kodeak, estatistika- eta lurralde-unitateenak, organismoenak eta 1. artikuluan aipatzen den eremu materialarekin lotutako beste edozein elementurenak nahitaez erabili beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikarako. Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak emango ditu homogeneizazio-arau teknikoak».

Sei.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 5. artikulua 2. paragrafoa, eta honela idatzita geldituko da:

«2.– Estatistikak estatistika-datuetatik, sektore pribatutik datozen datu masiboetatik, iturri digitaletatik lortutako datuetatik eta administrazio-datuetatik abiatuta egin daitezke.

Datu estatistikoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeak bere maila operatiboan lortutakoak, soil-soilik helburu estatistikoetarako.

Sektore pribatutik datozen datu masiboek aukera ematen dute sektore pribatuak bolumen masiboetan eta kalitatezkoetan datuak sortzeko duen ahalmen handia estatistika-helburu publikoetarako baliatzeko.

Iturri digitaletatik lortutako datuak dira Interneten, sare sozialetan edo gailu digitaletan islatzen diren jarduera, ekintza eta komunikazio digital arakagarrien multzoa.

Administrazio-datuak dira administrazio-kudeaketaren ondorioz edo administrazio-erabilerarako informazioa biltzeko eragiketa espezifikoen ondorioz lortutakoak, administrazio elektronikokoak barne.

Datu estatistikoak, sektore pribatutik datozen datu masiboak edo iturri digitaletatik lortutako datuen multzo antolatuek datu estatistikoak fitxategiak sortuko dituzte.

Administrazio-datuen multzo antolatuak administrazio-datuen fitxategiak sortuko ditu. Fitxategi horietatik datu-fitxategiak sortu ahal izango dira helburu estatistikoetarako».

Zazpi.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 6.5 artikulua a) letra, eta honela idatzita geldituko da:

«a) Eustat-Euskal Estatistika Erakundeari dagokio planaren aurreproiektua egitea, Euskal Estatistika Batzordeko kideek egindako planak aztertu ondoren».

Zortzi.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 7. artikulua 3. paragrafoa, eta honela idatzita geldituko da:

«3.– Plana garatzeko eta gauzatzeko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartzen diren urteko estatistika-programak, aurreko 6. artikuluko 5. paragrafoan ezarritako arauak betez, lege honetako 2. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren erregelamenduzko xedapenen parte izango dira».

Bederatzi.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 7. artikulua 5. paragrafoa, eta honela idatzita geldituko da:

«5.– Urteko estatistika-programek planaren eranskinetan aurreikusitako ezaugarriren bat aldatu ahal izango dute, Euskal Estatistika Batzordeak aldeko txostena eman ondoren. Aldaketa horrek arrazoitua izan beharko du, eta ezin izango du eraginik izan eragiketaren izaeran eta helburuetan».

Hamar.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 8. artikulua, eta honela idatzita geldituko da:

«1.– Lege honetako 26. artikuluan aipatutako estatistika-organo espezifikoa duten Jaurlaritzako sailek planean eta urteko estatistika programetan sartuta ez dauden estatistikak egin ahal izango dituzte, horiei aitortutako helburu eta eskumenei dagokienez. Estatistika horiek Gobernuak onartu beharko ditu dekretu bidez, Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak nahitaezko txostena egin ondoren. Txosten hori hogeita hamar eguneko epean emango da, dagokion proiektu teknikoa jasotzen denetik zenbatzen hasita, eta, hala badagokio, sailek egiaztatuko dute estatistikok egiteak ez dakarrela bikoiztasunik lehendik dauden beste estatistika batzuekin.

2.– Efizientzia eta baliabide publikoen kontrola direla eta, estatistika horiek ez daude estatistika-araudiaren mende eta Jaurlaritzako sailek noizean behin bakarrik egin ahal izango dituzte. Estatistika horiek ez dute inola ere ekarriko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren zerbitzura diharduten langileen gastu garbia handitzea.

3.– Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak Gobernuak berariaz aginduta bakarrik egin ahal izango ditu horrelako estatistikak.

4.– Urteko Estatistika Programan jasotako estatistikak lehentasunez egingo dira artikulua honetan aurreikusitakoaren aldean».

Hamaika.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 9. artikulua, eta honela idatzita geldituko da:

«Atal honetan aipatzen den estatistika-informazioa honako hauek osatuko dute: estatistika-datuek, sektore pribatutik datozen datu masiboek, administrazio-datuek edo lege honen 5. artikuluan aipatutako iturri digitaletako datuek, bai eta estatistikek berek ere.

Informazio hori estatistika bakoitzaren araudian zehaztuko da».

Hamabi.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 16. artikulua, eta honela idatzita geldituko da:

«1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Antolakundeak, bere maila operatiboan, gorde beharrekotzat jotzen den lortutako informazioa gorde eta zainduko du estatistika-eragiketarako gauzatzeko beharrezkoa ez den arte, eta informazio hori sekretu estatistikoaren

mende egongo da lege honetan adierazitako baldintzetan, nahiz eta, kasuan kasu, dagozkion emaitzak onartu izan.

2.– Informazioa gordetzeak ez du esan nahi, nahitaez, informazioaren jatorrizko euskarriak gorde behar direnik, baldin eta oinarritzko edukia euskarri informatikoan edo bestelakoren batean jasota badago.

3.– Erregelamendu bidez ezarriko dira informazioa suntsitzeko zein kontserbatzeko irizpideak, informazio hori jada beharrezkoa ez denean estatistika-eragiketak gauzatzeko».

Hamahiru.– Aldatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 19. artikuluko 3. paragrafoa, eta honela idatzita geratuko da:

«3.– Informatzaileen informazio estatistikoa emateak ez du inolako eraginik izango estatistikaz besteko eremuetan».

Hamalau.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 20. artikulua 3. paragrafoa, eta honela idatzita geldituko da:

«3.– Nolanahi ere, fitxategi-direktorioak ez dira sekretu estatistikoaren betebeharraren babespean egongo, hau da, establezimendu, enpresa, ustiategi edo bestelako erakundeen zerrendak eta dagozkien kokalekuak, izenak, jarduerak –esportazio eta inportaziokoak barne–, helbide elektroniko korporatiboak, telefono korporatiboak eta tamainaren adierazleak, sailkapenaren ondorioetarako».

Hamabost.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 29.1 artikulua h) letra, eta honela idatzita geldituko da:

«h) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-erregistroak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko nahitaezko txostena egitea, erregistro horien izaera dela-eta estatistika-helburuetarako datu-iturri gisa erabil daitezkeenean».

Hamasei.– Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 29.1 artikulua o) eta p) letrak gehitzen zaizkio, eta honela idatzita geratzen dira:

«o) Big data tekniken bidez datuak bildu, aztertu, tratatu eta masiboki bistaratzeko teknologien erabilera sustatzea, bai eta datuak hobeto aprobetxatzea ahalbidetzen duten sistemen eta formatuen bateragarritasuna ere.

p) Helburu estatistikoetarako datu-sistema integratu bat ezartzea, iturri anitzeko estatistikak egin ahal izateko. Estatistika-jardueraren eraginkortasuna hobetzeko, datuen eta metadatu azpiegitura ezarriko da, hala nola datuak, metadatuak, tratamenduak eta zerbitzu komunak eta elkarreragingarriak integratzen dituen azpiegitura zentrala, horiek interpretatzen eta erabiltzen lagun dezaten».

Hamazazpi.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 29. artikulua 2. paragrafoa, eta honela idatzita geldituko da:

«2.– Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak kudeatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanleriaren Erregistroa, lege honen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako moduan».

Hamazortzi.– Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 29. artikulua 3. eta 4. paragrafoak gehitzen zaizkio, eta honela idatzita geldituko dira:

«3.– Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak, kasuan kasuko sailekin ados jarrita, estatistika-azterlanak egin ahal izango ditu sail horien edo horiei lotutako edo horien mendeko

erakunde publikoen plan, programa, proiektu edo beste antolaketa- edo funtzio-alderdi batzuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Azterlan horiek lege honetan eta lege hau garrantuko duten arauetan ezarritako printzipioak eta arauak bete beharko dituzte. Azterlan horien emaitzak ez dira inola ere ofizialak izango. Hala badagokio, estatistika-organo espezifikoko lankidetzan arituko dira Eustat-Euskal Estatistika Erakundearekin azterlan horiek egiteko, aipatutako akordioan zehazten den moduan. Eustat-Euskal Estatistika Erakundea tratamendu-ingurune seguru batean eratuko da.

4.– Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak, estatistika-organo espezifikoeekin lankidetzan, hala badagokio, ikerketa-komunitateari datu konfidentzialetarako sarbidea eman ahal izango dio, baldin eta estatistika-unitateak zeharka identifikatzeko aukera baino ez badute ematen, estatistika-analisiak egin ditzaten ikerketa zientifikorako. Eustat-Euskal Estatistika Erakundea tratamendu-ingurune seguru batean eratuko da, ikerketa-komunitateari estatistika-sekretuak babestutako informazioa gurutzatu eta ikerketa zientifikorako estatistika-azterketak egin ahal izateko».

Hemeretzi.– Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen xedapen gehigarri bakarra lehenengo xedapen gehigarri gisa berritzen da.

Hogei.– Bigarren xedapen gehigarria eransten zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeari, eta honela idatzita geratzen da:

«Bigarren xedapen gehigarria.– Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanleriaren Erregistroa.

1.– Lege honen 29.2 artikuluan aipatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanleriaren Erregistroa sortzen da. Erregistro horretan, datu hauek jasoko dira: izena, abizenak, helbidea, sexua, jaioteguna, nazionalitatea eta NANaren edo, atzeritarren kasuan, horren ordeko dokumentuaren zenbakia.

2.– Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek biztanleen udal-eroldako informazioa bidali beharko diote Eustat-Euskal Estatistika Erakundeari aldizka, euskarri informatikoan, formatu estandarizatuetan eta aldi estandarizatuetan.

3.– Biztanleriaren erregistroaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta foru-administrazioetako organoek eta haien erakunde instituzionalek, interesdunen baimenik gabe, interesdunen datu pertsonalak eskatzea, beren eskumenak gauzatzeko beharrezkoak dituztenean eta soil-soilik bizilekua edo helbidea garrantzitsuak diren gaietarako.

4.– Eustat-Euskal Estatistika Erakundea Estatistikako Institutu Nazionalarekin koordinatuko da, erakunde horrek datuak eman diezazkion, Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanleriaren Erregistroa eguneratzen dela ziurtatzeko, betiere udalen eskumenak errespetatuz».

Hogeita bat.– Lege hau indarrean sartzetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean edo beste xedapen batzuetan Instituto Vasco de Estadística/Euskal Estatistika Erakundeari egindako aipamen guztiak Eustat-Euskal Estatistika Erakundeari egindakotzat hartuko dira euskarazko bertsioan, eta Eustat-Instituto Vasco de Estadística erakundeari egindakotzat gaztelaniazko bertsioan.

Hogeita bi.– Hirugarren xedapen gehigarria eranstean zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeari, eta honela idatzita geratzen da:

«Hirugarren xedapen gehigarria. Balio handiko estatistika-datuak.

1.– Balio handiko estatistika-datuak berrerabiltzearekin batera gizartearentzat, ingurumenarentzat eta ekonomiarentzat onura handiak dakartzaten datuak dira; bereziki, balio erantsiko zerbitzuak, aplikazioak, eta lanpostu berriak, duinak eta kalitatezkoak sortzeko egokiak direlako, eta balio erantsiko zerbitzuen onuradun potentzialen kopuruagatik eta datu multzo horietan oinarritutako aplikazioengatik.

2.– Balio handiko estatistika-datuak dira Europako Batzordeak bere betearazpen-erregelamenduetan ezartzen dituenak, eta urteko estatistika programen dekretuetan zehaztuko dira.

3.– Balio handiko estatistika-datuak Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak zabalduko ditu bere estatistika-datuaren bankuan, API aplikazioen programazio-interfaze egokien bidez eta, hala dagokionean, deskarga masiboaren bidez. Nolanahi ere, Sektore Publikoko Datu Irekiei eta Informazioa Berrerabiltzeari buruzko Zuzentarauan horretarako ezarritako argitalpen-irizpideak hartuko dira kontuan».

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Planaren indarraldia.

2023-2026 Euskal Estatistika Planaren indarraldia hura indarrean sartu eta 2026ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Luzapena.

Plan honen epemugan euskal estatistika plan berri bat onartu ez bada, plan hori automatikoki luzatuko da plan berri bat indarrean sartu arte, ezarritako epe edo aldien arabera baztertu behar diren estatistika-jarduerei dagokienez izan ezik.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroren 14a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

**AZAROAREN 9KO 10/2023 LEGEAREN I. ERANSKINA
ERAGIKETA ESTATISTIKOEN ZERRENDA**

010106	Giza garapenaren indizea
010107	Gobernuaren kalitateari buruzko inkesta
010121	Gertakari demografikoak aztertzeko adierazleak
010123	Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Euskara
010130	Biztanleriaren estatistika-erregistroa
010132	Estatistika soziodemografikoen datu-basea
010152	Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak
010154	Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Biztanleriaren egitura
010155	Biztanleriaren luzetarako estatistika (berria)
010180	Emakumeak landa-ingurunean
010301	Demografia-proiekzioak
010302	Jaiotzen estatistika
010303	Heriotzen estatistika
010304	Ezkontzen estatistika
010307	Bizi-itxaropeneko eta hilkortasuneko desberdintasun geografikoak eremu txikietan
010308	Desberdintasunak hilkortasunean, banakako posizio sozioekonomikoaren arabera
010311	Migrazio-mugimenduen estatistika
010313	Inkesta demografikoa
010314	Ezkontza-hausteen estatistika
010401	Adineko biztanleen panorama estatistikoa
010800	Atzerritar jatorriko biztanleen inkesta
010899	Kapital sozialaren inkesta
010901	Bizi-baldintzen inkesta
010902	Denbora-aurrekontuen inkesta
010903	Lana, familia eta norberaren bizi-bateratzeari buruzko inkesta
010904	Norberaren ongizate-inkesta
010905	Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta

010906	Euskal familien eta familia-etxeetako arazo sozialak
010907	Alokairu-erregimeneko etxekoen unitateei egindako inkesta
010908	Alokairuko familien finantza-ahaleginaren estatistika
010914	Gazteriaren panorama
010915	Panorama demografikoa
010930	Mugikortasunaren inkesta
020702	Mapa soziolinguistikoa
020703	Inkesta soziolinguistikoa
020705	EAS (euskararen adierazle-sistema) (berria)
020709	Euskararen aurrekontuak
020711	Helduen euskalduntzearen estatistika: ikasleak eta euskaltegiak
020713	Euskararen gizarte-azpiegitura publikoen eta pribatuen zentsua
020715	Funtzionarioen estatistika, euskara-mailaren arabera (hizkuntza-eskakizuna) eta administrazio motari jarraikiz
030401	Haurren aho-hortzetako osasunaren inkesta
030501	Osasunaren inkesta
030502	Arreta espezializatuaren inkesta
030503	Lehen mailako arreta publikoaren estatistika
030505	Osasun-arreta pribatuaren estatistika
030506	Osasunaren panorama
030508	Adikzioei buruzko inkesta
030580	Ospitaleetako erikortasun-estatistika
030582	Minbiziaren eraginean eta hura gainditzeko aukeretan dauden ezberdintasun sozialak
040601	Eskola-jardueraren estatistika
040603	Unibertsitatearen estatistika
040605	Hezkuntzaren panorama
040606	Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Hezkuntza
042911	Irakaskuntza publikoaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika

042913	Irakaskuntza pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistika
043201	Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G
050401	Lanaren estatistikak
050402	Biztanleria aktiboaren kualifikazioaren inkesta
050403	Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta
050404	Lan-merkatuaren zentsua
050407	Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Jarduera
050408	Lan-kostuen inkesta
050409	Euskal hezkuntza-sistemako tituludunak laneratzeari buruzko estatistika
050480	Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen estatistika
050481	Kaleratzeen eta horien kostuaren estatistika (berria)
050903	Laneko baldintzen inkesta
061001	Gizarteratzearen eta gizarte-ekintzaren gastu-estatistika
061002	Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika
061003	Gizarte-beharren inkesta
061004	Etterik gabeko pertsonen inkesta
061005	Mendeko pertsonen estatistika
061006	Etterik gabeko pertsonentzako baliabideen estatistika
061007	Genero-berdintasunaren indizea
061008	Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen jasotzaileen estatistika
061009	Gizarte-larrialdietarako laguntzen estatistika
061010	Zahartze aktiboaren indizea
061011	COVID-19ko heriotza-tasa adinekoen egoitzetan
061012	Larrialdietarako laguntza berezien (GLL) onuradunen beharrak
070191	Finantzaketa eta gastu publikoa kulturean
070194	Fitxategien estatistika
070196	Irakurketa-sare publikoko liburutegien estatistika
070197	Museoen eta bildumen estatistikak

070198	Arteen eta kultura-industrien estatistika
070201	Kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta
070202	Sormen-industrien estatistika
070222	Kirol-ohiturak
070225	Finantzaketa eta gastu publikoa kirolean
080101	Trafiko-istripuetako biktimen estatistika (hildakoak, zauritu larriak, zauritu arinak)
080102	Emakumeen kontrako indarkeriaren estatistika
080201	Presoen hileko estatistika
080202	Presoen urteko estatistika
080203	Emakumeen aurkako indarkeriari eta pertsonen arteko beste indarkeria mota batzuei buruzko inkesta
082714	Trafiko-istripuen urtekari estatistikoa
090001	Ingurumenaren inkesta - Familiak
090203	Airearen kalitatearen estatistika
090205	Berotegi-efektuko gasen inbentarioa
090207	Ingurumenaren adierazleak
090208	Nekazaritzako elikagaien lehen sektoreko ingurumen-adierazleak
090209	Hondakin arriskutsuen estatistika
090211	Hondakin ez-arriskutsuen estatistika
090212	Giza kontsumorako uren kalitatearen estatistika
090213	Bainu-uren kalitatearen estatistika
090214	Ur-masen kalitatearen estatistika
090215	Ur kontsumoaren estatistika
090217	Materialen fluxuaren estatistika
090218	Hiri-hondakinen estatistika
090219	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen estatistika
090223	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen estatistika
090224	Ontzien hondakinen estatistika
090226	Atmosferara igorritako kutsatzaileen inbentarioa

090300	Lurraldeko eta hirigintzako jasangarritasunaren adierazleak
099901	Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleak
102001	Abeltzaintzako eta akuikulturako estatistikak
102113	Basoen inbentarioa
102114	Nekazaritzako ustiategien egituraren inkesta
102115	ENKIS Euskal nekazaritzaren kontabilitateko informazio-sarea
102119	Baso-estatistikak
102124	Lurren banaketa orokorraren eta nekazaritzako produkzioen estatistika
102126	Lurralde-garapenaren adierazleak
102141	Nekazaritza-zentsua
102142	Saileko atari estatistikoa. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
102145	Nekazaritzako elikagaien sektorearen panorama estatistikoa
102211	Lehorreratzeen eta lehenengo arrain-salmentaren estatistika
102212	Arrantza-sektorearen inkesta ekonomikoa
112311	Industriaren inkesta
112312	Industria-produkzioaren indizea
112314	Euskal industriaren panorama
112315	Industria-sektorearen igurikimenei buruzko inkesta
112332	Euskal AEko energia-datuak
122401	Eraikuntzaren inkesta
122403	Eraikuntzaren koiunturako indizea
122404	Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Etxebizitzak
122411	Eraikuntzaren eta etxebizitzaren estatistika
122414	Etxebizitzaren beharren eta eskariaren inkesta
122416	Etxebizitzaren erabileraren inkesta
122417	Alokairu-merkatuaren estatistika
132612	Ibiltur: Euskal AE bisitatzen duen turistaren ezaugarriak eta joera
132613	Espainiako merkatutik Euskal Autonomia Erkidegorako bidaiak

132614	Nazioarteko turismo-merkatuaren mugimenduak Euskal AEn
132615	Turismo-ohiturak eta turismo hartzaileari buruzko pertzepzioa
132616	Kontsumo-ohiturei buruzko inkesta
132617	Turismo-industriaren profila
132680	Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta
132710	Garraioaren eskariaren irudia
132714	Salgaien garraioari buruzko inkesta
132715	Bidaiarien garraioari buruzko inkesta
133000	Zerbitzuen inkesta
142511	Merkataritzaren eta konponketaren inkesta
142530	Txikizkako merkataritzaren indizea
142533	Merkataritza-indizea azalera handietan eta elikadura-kate handietan
142534	Merkataritza-banaketaren adierazleen monitorea
142535	Txikizkako merkataritzaren barometroa
142536	Merkataritza-indizea
142537	Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea
142538	Merkataritza-aniztasunaren indizea
143101	Kanpo-merkataritzaren estatistika
153011	Sektore publikoaren aurrekontuen estatistikak
153016	Aurrekontuak egikaritzearen estatistika
153020	Gobernantza adierazle bateria-GAB
170111	<i>Input-output</i> esparrua
170112	Kontu ekonomikoak
170114	Finantzaz besteko enpresen ondare-kontuak
170115	Hiruhileroko kontu ekonomikoak
170117	Hezkuntzaren kontua
170118	Osasunaren kontua
170120	Udal BPG

170201	Elikaduraren balio-katearen kontu sateliteak
170202	Zuraren balio-katearen kontu satelitea
170910	Gizarte-babesaren kontua
172101	Nekazaritzaren eta baso-sektorearen kontu ekonomikoak
172502	Egiturazko adierazleak
172503	Familia-gastuaren inkesta
172504	Etxeetako elikadura-kontsumoa
172505	Kontsumoko adierazleen monitorea
172514	Udalerrri mailako iraunkortasun-adierazleak
172515	Udal-ekipamendu eta -azpiegituren inkesta
172615	Turismoaren kontu satelitea
173001	Administrazio publikoen kontuak
173003	Euskal administrazioen kontu ekonomikoak
173301	Ekonomia sozialaren kontu sateliteak
173302	Etxeke lanaren kontu satelitea
173303	Kulturaren kontu satelitea
173304	Ingurumen-kontuak. Ingurumen-zergen kontuak
173305	Ingurumen-kontuak. Ingurumena babesteko gastu-kontua
173306	Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen kontua
173401	Egiturazko informazio ekonomikoaren datu-basea
173402	Pertsonen eta familien errentaren estatistika
173403	Koiunturazko informazio ekonomikoaren datu-basea
173405	Inportatzaileen eta esportatzaileen inkesta
179901	Behatu gabeko ekonomiaren neurketa
179902	Lehiakortasun-adierazleak
182113	Nekazaritzako prezioak eta prezio-indizeak
182313	Industria-prezioen indizea
182415	Higiezin salerosketari buruzko estatistika

182480	Eraikuntzaren kostuen indizea
182532	Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak
190904	Euskal ekonomia sozialaren estatistika
190905	Euskal ekonomia sozialaren emaitzen aurrerapena
190906	Euskal AEko fundazio-sektorea eta onura publikoko elkartegintza
200141	Etxebizitzen direktorioa
200160	Osasun-eremuen lurraldeko datu-basea
200161	Lurraldeko datu-basea
200162	Izendegiak, adierazleak, kodeak eta metadatuak
200163	Jarduera ekonomikoen direktorioa
200165	Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika
200170	Ekipamendu eta zerbitzuen inbentarioa
200190	Langileen estatistika Euskal AEko sektore publikoan
200206	Udalplan: informazio geografikoaren sistema eta lurralde-datuen bankua
200208	Inbentarioa: plangintza orokorraren inbentarioa
200209	Hiri-kalteberatasunaren adierazleak
202131	Nekazaritzako ustiategien direktorioa
202221	Arrantza-flotaren direktorioa
203021	Administrazio publikoen direktorioa
203022	Atari publikoen direktorioa
203023	Zerbitzu eta prozedura publiko elektronikoen direktorioa
210164	Lurraldeko datu-base georreferentziatua
218101	Estatistiken edizio- eta egozpen-metodo automatikoen I+G+b
218103	I+G+b kalitatean estatistika ofizialaren ekoizpen eta zabalkundean
218106	Informazioa biltzeko moduen I+G+b
218108	Erregistro administratiboak fusionatzeko metodoen I+G+b
218109	Euskal Estatistika Antolakunderako prestakuntza estatistikoa
218110	Mikrodatu-fitxategiak eta estatistika-taulak babesteko metodo estatistikoen I+G+b

218113	Laginketak optimizatzearen I+G+b
218115	Area txikien zenbatespenaren I+G+b
218117	Datu estatistikoak bistaratzearen I+G+b
218120	Estatistika-ekoizpenaren prozesuaren estandarrak
218122	Erantzun ezaren azterketa estatistikoaren I+G+b
218126	Inkestak fusionatzeko metodoen I+G+b
218127	Modelizatze estatistiko aurreratua garatzearen I+G+b
218128	<i>Big data</i> barne duten ekoizpen eta zabalkunde estatistikoaren prozesuen I+G+b
218129	Denborazko serieen tratamendu eta zabalkundearen I+G+b
220122	Informazioaren gizartearen inkesta. Familiak
220123	Sare sozialak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoetan
220126	Informazioaren gizartearen panorama
222140	Informazioaren gizartearen inkesta. Lehen sektorea
222141	Informazioaren gizartearen inkesta. Administrazioa
222143	E-administrazioaren barometroa
222315	Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen estatistika-IKT
223002	Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak
223202	Berrikuntzaren inkesta
223203	Europako berrikuntzako adierazleen panela-EIS
223204	Goi teknologiako sektorearen estatistika
223205	Bioteknologiako I+Gren estatistika
223208	Zerbitzu publiko elektronikoen estatistika-ZPEE
990102	Euskadi zenbakitan
990104	Udal-adierazleak
990107	Euskadi Europar Batasunean
990108	Hauteskundeetako emaitzen estatistika
990127	Ikastetxeentzako estatistika-informazioa (eskolako webgunea)
990128	Pirinioetako estatistika-atlasa

990170	Euroeskualdea zifretan
999101	Euskal Estatistika Antolakundearen datu estatistikoek bankua
999102	Eustateko Internet zerbitzaria
999103	Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren atala Eustaten webgunean
999104	Sailaren atari estatistikoa. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
999105	Sailaren atari estatistikoa. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila
999106	Euskal AEko administrazio-informazioko iturrien inbentarioa
999107	Lurdata: estatistika-datuak informazio geografikoko sistemen bidez zabaltzea

**AZAROAREN 9KO 10/2023 LEGEAREN II. ERANSKINA
ERAGIKETA ESTATISTIKOEN ZERRENDA ERAKUNDE ARDURADUNAREN ARABERA****2 Segurtasun Saila**

- 080101 Trafiko-istripuetako biktimen estatistika (hildakoak, zauritu larriak, zauritu arinak)
- 080102 Emakumeen kontrako indarkeriaren estatistika
- 082714 Trafiko-istripuen urtekari estatistikoa
- 990108 Hauteskundeetako emaitzen estatistika

3 Lan eta Enplegu Saila

- 050401 Lanaren estatistikak
- 050402 Biztanleria aktiboaren kualifikazioaren inkesta
- 050404 Lan-merkatuaren zentsua
- 050409 Euskal hezkuntza-sistemako tituludunak laneratzeari buruzko estatistika
- 050480 Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen estatistika
- 050903 Laneko baldintzen inkesta
- 061008 Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen jasotzaileen estatistika
- 190904 Euskal ekonomia sozialaren estatistika
- 190905 Euskal ekonomia sozialaren emaitzen aurrerapena

4 Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila

- 010107 Gobernuaren kalitateari buruzko inkesta
- 153020 Gobernantza adierazle bateria-GAB
- 190906 Euskal AEko fundazio-sektorea eta onura publikoko elkartegintza
- 200190 Langileen estatistika Euskal AEko sektore publikoan
- 203022 Atari publikoen direktoria
- 203023 Zerbitzu eta prozedura publiko elektronikoaren direktoria
- 220123 Sare sozialak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoetan
- 222143 E-administrazioaren barometroa
- 223208 Zerbitzu publiko elektronikoaren estatistika-ZPEE
- 999105 Sailaren atari estatistikoa. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Ssaila

5 Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

010180	Emakumeak landa-ingurunean
090203	Airearen kalitatearen estatistika
090205	Berotegi-efektuko gasen inbentarioa
090207	Ingurumenaren adierazleak
090208	Nekazaritzako elikagaien lehen sektoreko ingurumen-adierazleak
090209	Hondakin arriskutsuen estatistika
090211	Hondakin ez-arriskutsuen estatistika
090214	Ur-masen kalitatearen estatistika
090215	Ur-kontsumoaren estatistika
090217	Materialen fluxuaren estatistika
090218	Hiri-hondakinen estatistika
090219	Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen estatistika
090223	Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen estatistika
090224	Ontzien hondakinen estatistika
090226	Atmosferara igorritako kutsatzaileen inbentarioa
102001	Abeltzaintzako eta akuikulturako estatistikak
102113	Basoen inbentarioa
102115	ENKIS Euskal nekazaritzaren kontabilitateko informazio-sarea
102119	Baso-estatistikak
102124	Lurren banaketa orokorraren eta nekazaritzako produkzioen estatistika
102126	Lurralde-garapenaren adierazleak
102142	Saileko atari estatistikoa. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
102145	Nekazaritzako elikagaien sektorearen panorama estatistikoa
102211	Lehorreratzeen eta lehenengo arrain-salmentaren estatistika
102212	Arrantza-sektorearen inkesta ekonomikoa
112332	Euskal AEko energia-datuak
170201	Elikaduraren balio-katearen kontu sateliteak
170202	Zuraren balio-katearen kontu sateliteak

- 172101 Nekazaritzaren eta baso-sektorearen kontu ekonomikoak
- 172504 Etxeetako elikagaien kontsumoa
- 182113 Nekazaritzako prezioak eta prezio-indizeak
- 202221 Arrantza-flotaren direktorioa

6 Ekonomia eta Ogasun Saila

- 153016 Aurrekontuak egikaritzearen estatistika
- 172514 Udalerri mailako iraunkortasun-adierazleak
- 172515 Udal-ekipamendu eta -azpiegituren inkesta
- 173003 Euskal administrazioen kontu ekonomikoak

08 Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

- 010907 Alokairu-erregimeneko etxekoen unitateei egindako inkesta
- 010930 Mugikortasunaren inkesta
- 090300 Lurraldeko eta hirigintzako jasangarritasunaren adierazleak
- 122411 Eraikuntzaren eta etxebizitzaren estatistika
- 122414 Etxebizitzaren beharren eta eskariaren inkesta
- 122416 Etxebizitzaren erabileraren inkesta
- 122417 Alokairu-merkatuaren estatistika
- 132710 Garraioaren eskariaren irudia
- 132714 Salgaien garraioari buruzko inkesta
- 132715 Bidaiarien garraioari buruzko inkesta
- 182415 Higiezin salerosketari buruzko estatistika
- 200206 Udalplan: informazio geografikoaren sistema eta lurralde-datuen bankua
- 200208 Inbentarioa: plangintza orokorraren inbentarioa
- 200209 Hiri-kalteberatasunaren adierazleak
- 999104 Sailaren atari estatistikoa. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak saila

09 Osasun Saila

- 010307 Bizi-itxaropeneko eta hilkortasuneko desberdintasun geografikoak eremu txikietan
- 010308 Desberdintasunak hilkortasunean, banakako posizio sozioekonomikoaren arabera
- 030401 Haurren aho-hortzetako osasunaren inkesta
- 030501 Osasunaren inkesta
- 030502 Arreta espezializatuaren inkesta
- 030503 Lehen mailako arreta publikoaren estatistika
- 030508 Adikzioei buruzko inkesta
- 030582 Minbiziaren eraginean eta hura gainditzeko aukeretan dauden ezberdintasun sozialak
- 090212 Giza kontsumorako uren kalitatearen estatistika
- 090213 Bainu-uren kalitatearen estatistika
- 200160 Osasun-eremuen lurraldeko datu-basea

10 Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Saila

- 010800 Atzerritar jatorriko biztanleen inkesta
- 010905 Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta
- 010906 Euskal familien eta familia-etxeetako arazo sozialak
- 061001 Gizarteratzearen eta gizarte-ekintzaren gastu-estatistika
- 061002 Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika
- 061003 Gizarte-beharren inkesta
- 061009 Gizarte-larrialdietarako laguntzen estatistika
- 061010 Zahartze aktiboaren indizea
- 061011 COVID-19ko heriotza-tasa adinekoen egoitzetan
- 061012 Larrialdietarako laguntza berezien (GLL) onuradunen beharrak
- 080201 Presoen hileko estatistika
- 080202 Presoen urteko estatistika
- 080203 Emakumeen aurkako indarkeriari eta pertsonen arteko beste indarkeria mota batzuei buruzko inkesta

11 Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

- 020702 Mapa soziolinguistikoa
- 020703 Inkesta soziolinguistikoa
- 020705 EAS (euskararen adierazle-sistema) (berria)
- 020709 Euskararen aurrekontuak

020711	Helduen euskalduntzearen estatistika: ikasleak eta euskaltegiak
020713	Euskararen gizarte-azpiegitura publikoen eta pribatuen zentsua
020715	Funtzionarioen estatistika, euskara-mailaren arabera (hizkuntza-eskakizuna) eta administrazio motari jarraikiz
070191	Finantzaketa eta gastu publikoa kulturean
070194	Fitxategien estatistika
070196	Irakurketa-sare publikoko liburutegien estatistika
070197	Museoen eta bildumen estatistikak
070198	Arteen eta kultura-industrien estatistika
070201	Kultura-ohiturei, -praktikei eta-kontsumoari buruzko inkesta
070202	Sormen-industrien estatistika
070222	Kirol-ohiturak
070225	Finantzaketa eta gastu publikoa kirolean

12 Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila

132612	Ibiltur: Euskal AE bisitatzen duen turistaren ezaugarriak eta joera
132613	Espainiako merkatutik Euskal Autonomia Erkidegorako bidaiak
132614	Nazioarteko turismo-merkatuaren mugimenduak Euskal AEn
132615	Turismo-ohiturak eta turismo hartzaileari buruzko pertzepzioa
132616	Kontsumo-ohiturei buruzko inkesta
132617	Turismo-industriaren profila
142534	Merkataritza-banaketaren adierazleen monitorea
142535	Txikizkako merkataritzaren barometroa
142538	Merkataritza-aniztasunaren indizea
172505	Kontsumoko adierazleen monitorea

46 Eustat-Euskal Estatistika Erakundea

010106	Giza garapenaren indizea
010121	Gertakari demografikoak aztertzeko adierazleak
010123	Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Euskara

010130	Biztanleriaren estatistika-erregistroa
010132	Estatistika soziodemografikoen datu-basea
010152	Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak
010154	Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Biztanleriaren egitura
010155	Biztanleriaren luzetarako estatistika (berria)
010301	Demografia-proiekzioak
010302	Jaiotzen estatistika
010303	Heriotzen estatistika
010304	Ezkontzen estatistika
010311	Migrazio-mugimenduen estatistika
010313	Inkesta demografikoa
010314	Ezkontza-hausteen estatistika
010401	Adineko biztanleen panorama estatistikoa
010899	Kapital sozialaren inkesta
010901	Bizi-baldintzen inkesta
010902	Denbora-aurrekontuen inkesta
010903	Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta
010904	Norberaren ongizate-inkesta
010908	Alokairuko familien finantza-ahaleginaren estatistika
010914	Gazteriaren panorama
010915	Panorama demografikoa
030505	Osasun-arreta pribatuaren estatistika
